



## Zurriolako Ataria

76. alea

2019-11-08

### Basoeskola proiektua

Ekoguneko fundazioko hezitzaileak bidelagun, Basoeskola proiektua abian jarriko dugu Haur Hezkuntzan. Honen guztiaren inguruan hitz egiteko eta proiektuaren berri emateko hitzaldi bat antolatu dugu gurasoentzat azaroaren 21erako. [Galdetegia \(info+\)](#)



### Gladys Enean HH3koak

Aurreko asteazkenean, urriaren 30ean, 3 urteko lagunak Gladys Eneara joan ziren goiz pasa. Oso koloretsu zegoen parkea eta bertan aritu ziren jolasean, hostoak biltzen, paumak eta ahateak ikusten... Ondoren autobusez itzuli eta bazkaltzera! Primeran pasatu zuten!



### LH5 unibertsoa

LH5eko ikasleak unibertsuaren inguruko ikerketa bat egin eta aurkezpen zoragarria prestatu diete LH4ko lagunei! Oso gustora aritu dira eta asko ikasi dugu elkarrekin eta elkarrengandik!



### DBH4koak Zumaian

Lehenengo astean DBH4ko biologiako ikasleak Zumaian egin zuten egun-pasa bertako Flysch-a ezagutzeko. Bertatik bertara aztertu ahal izan zuten kostaldeko geologia eta ekosistema paregabe hau.



### Batx1ekoak Zinetek-en

Azaroaren 29an Batx1eko ekonomiako ikasleak Orona Fundaziora gerturatu ziren Zinetekesk eskaintzen zuen "Akira" filma ikustera eta haren inguruan hitz egitera. "Akira", 1988koa, mendebaldera iritsi zen lehen filma animatua izan zen eta orduan etorkizuna zen 2019 urtean gertatuko zirenak aurreikusten saiatzen zen. Pelikulak bere zailtasunak zituen arren, ikasleek etekina atera zioten eta esperientzia berritzeko gogoz geratu ziren.



## OHARRAK / AGENDA:

- **HH2 - Helduen Danborrada:** [Zirkularra](#).
- **HH4-5:** TINKO zinema euskaraz. Goiz pasa. Azaroak 13. 9:00etarako etorri ikastolara.
- **LH3:** TINKO zinema euskaraz. Goiz pasa. Azaroak 12.
- **DBH1-2:** Buletin berriak. Informazio saioa. Azaroak 13. 17:15. Hurrako jangelan.
- **DBH4:** Gabonetako gozoen salmenta. [Zirkularra](#).
- **BATXI2:** Unibertsitateen informazio saioak. Azaroak 13.
- **Gurekin Zerbitzuetan lan egiteko:** [Galdetegia](#).
- **Jangela:** Azaroko [menua](#).
- **Helduen Danborrada:** [Izena emateko orria](#) (partaide zahar eta berriek osatzeko, HH2koak izan ezik).
- **Zurrimendi - Mendi Taldea:** Azaroko [irteera](#).
- **Eskola Kontseilua:** Bilera. Hurren. 17:15.
- **Eskola kirola:** 3. Jardunaldia. [A](#) eta [B](#).
- **Aisialdiko jarduerak haurrentzat:** [Azaroak 8-10](#).
- **Irakurketa Kluba:** 6-8 urte. [Informazioa](#). [Izen-ematea](#).
- **"Gure Bizipoza, Guztiona".** Dokumentala. [Aurkezpena](#). Azaroak 12. 18:30.



Nafar hegoaldeko uzte

**EUSKARARI PUZKA**



